



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko apirilaren 21a

56. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—10-23/CCO-00005. Valtierrako Udalaren 2021eko kontu orokorra, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

10-23/CCO-00005. Valtierrako Udalaren 2021eko kontu orokorra, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Batzorde Iraunkorrek, 2023ko apirilaren 4an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Valtierrako Udalaren 2021eko kontu orokorrari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Adieraztea Valtierrako Udalaren 2021eko kontu orokorrari buruzko fiskalizazio-txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Valtierrako Udalaren 2021eko kontu orokorrari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
 - II. Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa (4. or.).
 - III. Iritzia, salbuespenekin (5. or.).
 - IV. Iritziaren oinarria, salbuespenekin (6. or.).
 - V. Auditoretzako funtsezko gaiak (7. or.).
 - VI. Azpimarra egiteko paragrafoa (8. or.).
 - VII. Bestelakoak (9. or.).
 - VIII. Bestelako lege- eta erregelamendu-errekermenduei buruzko informazioa (10. or.).
 - IX. Valtierrako Udalaren erantzukizuna (10. or.).
 - X. Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna (11. or.).
 - XI. Muntako gomendioak (12. or.).
1. gehigarria. Valtierrako Udalaren 2021eko kontu orokorraren laburpena (13. or.).
 2. gehigarria. Valtierrako Udala (16. or.).
 3. gehigarria. Arau-esparrua (18. or.).
 4. gehigarria. Oharrak eta fiskalizazioaren aurkikuntza gehigarriak (19. or.).

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Lege arautzailearekin eta 2022ko jarduera programarekin bat etorriz, Valtierrako Udalaren 2021eko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu du.

Azterketa lana 2022ko azarotik 2023ko otsailera bitarte egin zuen auditoretza-enpresa pribatu batek, eta Kontuen Ganberako talde batek —auditoretzako teknikari batek eta auditore batek— gainbegiratu zuen, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboekin lankidetzan.

Jarduketa horren emaitzak Valtierrako Udaleko alkateari jakinarazi zitzaizkion, egokitzat jotzen zituen alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz. Ezarritako epea igarota, ez da alegaziorik aurkeztu.

Udaleko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

Txosten honetako datu ekonomiko guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimorik ez agertzeko. Emandako datuek eta ehunekoek beti adierazten dute balio zehatz bakoitza biribilduta, eta ez biribildutako datuen batura.

II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Gure lanaren xedea da gai hauei buruz gure iritzia ematea:

- Ea kontu orokorrak, alderdi esanguratsu guztietan, irudi fidela ematen duen 2021eko abenduaren 31ko ondareari, finantza-egoerari, aurrekontu-likidazioari eta emaitza ekonomikoari buruz, bat etorri finantza-informazioa dela-eta aplikatzekoa den arau-esparruarekin eta, bereziki, bertan jasota dauden kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta -irizpideekin.

- Horrez gain, eta finantza-fiskalizazioaz denaz bezainbatean, Valtierra Udalak legezkotasuna bete ote duen aztertu da, langileriarri eta administrazio-kontratazioari dagokienez. Horri buruzko ondorioak txosten honetako VIII. kapituluaren jasota datoz —“Bestelako lege- eta erregelamendu-errekerimenduei buruzko informazioa”—.

Lanaren norainokoa izan da Valtierra Udalaren 2021eko ekitaldiko kontu orokorra, udalak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari igorri diona. Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitate Ins-trukzio Orokorra onesten duen irailaren 21eko 272/1998 Foru Dekretuarekin bat, honako hauek osatu behar dute kontu orokorra:

a) Udalaren kontua, honako hauek osatua:

- Aurrekontuaren likidazio-espeditentia.

- Ekonomia-, ondare- eta finantza-egoeraren espeditentia, zeina egoera-balantzeak eta galera-irabazien kontuak osatzen baitute.

- Udalaren kontuaren eranskinak: diruzaintzako egoera-orria, etorkizunerako hitzartuta dauden gastuen eta diru-sarreraren egoera-orria, baloreen egoera-orria eta mugimendua, eta tasa eta prezio publikoekin finantzatutako zerbitzuen kostuei buruzko oroitidazkia.

b) Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, zorraren egoera eta kontu-hartzaitzaren txostena.

Legedia betetzea denaz bezainbatean, norainokoa dagokie txosten honen 4. eranskinean aipatzen diren laginetan berrikusitako eragiketei.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2021eko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruz behar diren egiaztapenak egin dira, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

III. IRITZIA, SALBUESPENEKIN

Nafarroako Kontuen Ganberak, hari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak baliatuz, Valtierrako Udalaren kontu orokorra fiskalizatu du. Kontu orokorrak osagai nagusi hauek ditu: 2021eko abenduaren 31ko balantzea, ekonomia- eta ondare-emaizaren kontua eta data horretan amaitutako ekitaldiari buruzko oroitidazkia.

Gure iritziz, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" atalean norainokoaz azaldutako mugak izan ditzakeen eraginengatik ez bada, Kontu Orokorrak irudi leiala erakusten du, alderdi esanguratsu guztietan, ondareari eta Udalaren 2021eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate- eta aurrekontu-arloko printzipio eta irizpideei jarraituz.

IV. IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN

- Balantzeko ibilgetu materialaren kontuan ekaitz-tanga baten hobekuntza erregistratu da, 587.762 euroko zenbateko azpibaloetsikoa.

- Ekitaldi honetan, 413.517 euroko betebeharrak onartu ditu udalak, 2022ko otsailean egiazki egin-dako zenbait maileguren amortizazio aurreratuei dagozkienak. Hortaz, kontabilitateko egoera-orrietan gainbalioetsita ageri dira betebeharrak onartu garbiak eta ekitaldia ixtean ordaintzeke zeuden betebeharrak; balantzean, berriz, azpibaloetsirik dago "Jasotako maileguen" kontua.

- Balantzean, aurreko ekitaldietatik heldu den 28.039 euroko gorabehera dago aktiboaren eta pasiboaren artean.

- Udalak ez du ondasunen inbentario gaurkotu, zehaztu eta baloraturik; hortaz, ezin izan da ibilgetu-aren kontabilitate-saldoaren arrazoizkotasunaren ebidentziarik lortu. Saldo hori 27 milioikoa zen 2021eko abenduaren 31n.

Kanpo-kontrolako erakunde publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera egin dugu fiskalizazioa, eta, zehazki, finantza-fiskalizazioari buruzko ISSAI-ES 200 arauan ezarritakoaren arabera; halaber, kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio gida praktikoak (GPF-OCEX) erabili ditugu. Arau horien indarrez dugun erantzukizuna aurrerago deskribatuko dugu, txosten honetako "Kontuen Ganberaren erantzukizunak" atalean hain zuzen ere.

Kontu orokorrari buruzko fiskalizazioan aplikatu behar ditugun eskakizun etikoekin eta independentzia babestearen arlokoekin bat, entitatearekiko independenteak gara, fiskalizazio publikoko jarduerari buruzko araudiak exijitzen duen bezala.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria, eta egokia, jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia salbuespenekin emateko.

V. AUDITORETZAKO FUNTSEZKO GAIAK

Auditoretzako funtsezko gaiak dira, gure iritzi profesionalaren arabera, esanahi handiena izan dutenak aztertutako aldiko kontu orokorrari egin diogun fiskalizazioan. Gai horiek kontu orokorraren osotasunari buruzko auditoretzaren testuinguruan eta kontu orokorrari buruzko iritzia taxutzera-koan jorratu ditugu, eta ez dugu bereiz azalduko gai horien gaineko iritzirik.

Txosten honetako “Salbuespenekin emandako iritziaren oinarria” atalean azalduko gorabehe-
rak salbu, ez dugu gure fiskalizazioan funtsezkotzat jotako inolako gorabeheraren berririk ematen.

VI. AZPIMARRA EGITEKO PARAGRAFOA

Valtierrako Udalaren egoera finantzarioa ona da. Aurrezki garbia positiboa da, esan nahi baita udalak behar adina baliabide sortzen duela funtzionamendu gastuei eta finantza-zamari aurre egiteko. Murriztu egin da zor bizia, eta udalak diruzaintzako gerakin handia dauka; hortaz, badu likidezirik geroagoko ekitaldietako aurrekontu-aldaketak finantzatzeko.

VII. BESTELAKOAK

- Udalak adierazi digunez, COVID-19aren pandemiak 2021eko jardueran ere izan du eragina. Erre-fortzuko langileak kontratatu ziren, Nafarroako Gobernuak diruz lagunduta, 0tik 3 urtera bitarteko zen-troan, eta ikastetxea garbitzeko orduak igo ziren. Ez zen herriko festarik ospatu, eta horren orde-z kultur jarduerak egin ziren udan, bai eta festa-ekitaldi batzuk ere abenduan. Ez zen emergentziazko kontratazi-orik egin, eta ez ziren onetsi 2020an egindako emergentziazko kontratazioen espedienteak.

Ezin izan dira zenbatetsi pandemiarekin lotutako gastu eta diru-sarrera guztiak, pandemiarekin zuzenean lotutako bi aurrekontu-partida sortu direlako soilik: "Foru aginduak ukitutako enpresendako laguntzak" eta "Zenbait gastu, COVIDa dela-eta". Gastuak, guztira, 5.462 eurokoak izan dira, baina zenbateko hori ez dugu uste COVIDak udalaren jardueran izandako eragina erakusten duenik.

- Ohartarazi egin behar dugu 2020ko kontu orokorrari buruzko auditoretzarik ez dela egin, eta, hortaz, 2021eko kontu orokorrean —konparazioa egite aldera— ekitaldi hori dela-eta jasotako informazioari buruzkorik ere ez.

- Betean Auditoría SLP auditoretza-enpresak egin du, Nafarroako Kontuen Ganberarekin sinatutako kontratua betez, auditoretza egin zaion entitatearen kontu orokorrari buruzko fiskalizazioaren landa-lana. Kontuen Ganbera enpresa horrek egindako lanean oinarritu da txosten hau egiteko.

VIII. BESTELAKO LEGE- ETA ERREGELAMENDU-ERREKERIMENDUEI BURUZKO INFORMAZIOA

Valtierrako Udalaren 2021eko Kontu Orokorrari buruz egin dugun finantza-auditoretzan aurreikusitako norainokoa aintzat hartuta, honako hauetan legezkotasuna bete ote den aztertu dugu:

- Langileen arloa, zeina abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuak arautzen baitu gehienbat; horren biez, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onetsi zen, bai eta hura garatzeko xedapenak ere.
- Administrazio-kontratazioa, zeina Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak —aurrerantzean, KPFL— arautzen baitu gehienbat.

Egiaztapen hori egiteko, zenbait auditoretza-prozedura erabili ditugu: ezarritako barne-kontrolaren egiaztapena eta auditoretza-lanaren planifikazioan aurreikusitako prozedura analitiko eta substantiboak.

Ebidentzia nahikoa eta egokia lortu dugu pentsatzeko ezen legezkotasun-alderdi esanguratsuenak bete direla, aplikatutako prozedurekin, adierazitako alderdi horiei dagokienez. Hona ez-betezteak:

- Musika eskolarako irakasleak lanaldi partzialean kontratatzearen arloan, prozedurak ez du bermatzen publizitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak betetzen direla.
- Administrazio-kontratazioaren arloan, esleipen-hartzaileek ematen jarraitzen dituzten zerbitzuak ordaindu ditu udalak, nahiz eta gainditu egin den kontratueterako ezarritako gehieneko epea. Liburutegia, musika eskola eta ikastetxea garbitzeko kontratuaren kasuan, berriz, handitu egin dira eman beharreko zerbitzuak. Udalak emandako informazioaren arabera, honako hauek dira muga-egunera iritsita 2021ean betebeharrak onartu beharra eragin zuten kontratuak:

Deskribapena	Kontratuaren muga-eguna	ABG, 2021
Liburutegia, musika eskola eta ikastetxea garbitzea	2014/01/04	54465
Ur-araztegiaren mantentze-lanak	2011/01/30	35140
Hirigintza arloko aholkularitza	2016/09/17	33369
Udaletxea garbitzea	2014/01/04	27430
Kultur-etxeko atezaintza, mantentze-lanak eta garbiketa	2018/02/01	20665
Tokiko telebista-kanala ¹	2016/07/19	19483
ABG, guztira, muga-egunera iritsitako kontratuen araber		190.552

IX. VALTIERRAKO UDALAREN ERANTZUKIZUNA

Valtierrako Udaleko Kontu-hartzailletza da kontu orokorra egiteko ardura duena. Halako moduz egin behar du non leialki irudikatuko baititu udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, finantza-egoera eta emaitzak, entitateari aplikatzekoa zaion finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat. Bermatu egin beharko du, halaber, kontu orokorrean islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatu beharreko araudiarekin.

Udalaren erantzukizuna da, halaber, beharrezkotzat jotzen dituen barne kontroleko sistemak ezartzea, bermatu ahal izateko kontu orokorrean iruzurraren edo akatsen ondoriozko oker materialik ez dagoela eta egindako jardueran lege-urratzerik ez dagoela.

2021eko kontu orokorra 2022ko abenduaren 2an onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak.

¹ Berriz esleitu da 2022an.

X. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure helburua da arrazoizko ziurtasun bat lortzea kontu orokorrean iruzur edo akatsen ondoriozko akats materialik ez egoteari buruz, bai eta gure iritzia duen auditoretza-txosten bat egitea ere.

Arrazoizko ziurtasuna, hain zuzen ere, ziurtasun maila handia da, baina ez du bermatzen kanpo kontroleko organoen araudiari jarraikiz egindako fiskalizazio batek beti atzemanen dituenik akats materialak edo ez-betetze adierazgarriak. Akatsak iruzurraren edo errorearen ondorio izan daitezke, edo legea ez betetzearen ondorio, eta akats materialtzat jotzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta, baldin eta zentzuz aurreikusi ahal bada txostenen erabiltzaileen erabaki ekonomikoetan eraginen dutela.

Fiskalizazioaren atal gisa, eta kanpo kontroleko organoen araudiarekin bat etorriz, gure iritzi profesionala aplikatzen dugu eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditoretza osoan. Gainera:

- Iruzur edo akatsen ondoriozko akats materialak izateko arriskuak identifikatu eta baloratzen ditugu kontu orokorrean, auditoretzako prozedurak diseinatzen eta aplikatzen ditugu arrisku horiei erantzuteko, eta auditoretzako ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritziari oinarria emateko. Iruzurraren ondoriozko akats material bat ez atzemateko arriskua handiagoa da errorearen ondoriozko akats materialaren kasuan baino; izan ere, iruzurra dagoenean tartean izan daitezke kolusioa, faltsutzea, berariazko omisioak, berariazko adierazpen okerrak edo barne-kontrolaren saihestea.
- Fiskalizaziorako beharrezkoa den ezagutza lortzen dugu barne-kontrolari buruz, inguruabarren arabera auditoretza-prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez.
- Ebaluatzen dugu ea kontabilitate-politika egokiak aplikatu diren eta arrazoizkoak ote diren kontabilitateko zenbatespenak eta kudeaketa organoak horien arabera emandako informazioa.
- Kontu orokorraren aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, emandako informazioa barne, eta ea kontu horrek zehatz irudikatzen dituen transakzioak eta azpian dauden egitateak.

Entitateko gobernu organoarekin harremanetan aritzen gara gai hauen inguruan, besteak beste: planifikatutako auditoretza-proben norainokoa eta haiek egiteko unea, fiskalizazioan aurkitutako gorabehera adierazgarriak, eta fiskalizazioan zehar identifikatzen ahal ditugun barne-kontrolako akats adierazgarriak. Entitateko gobernu organoari jakinarazi zaizkion alderdien artean, zehazten dugu zein izan diren kontu orokorraren fiskalizazioan garrantzi handienekoak eta, horrenbestez, auditoretzako funtsezko gaiak.

XI. MUNTAKO GOMENDIOAK

Egindako finantza-fiskalizazioaren ondorioz eta langileen nahiz administrazio-kontratazioaren arloetan egindako azterketaren ondorioz, honako gomendio hauek egin behar ditugu:

Gure gomendioak:

- *Balantzea deskoadratzea eragin duten gorabeherak identifikatzea eta ebaztea, bai eta udalaren kontabilitateko aplikazio informatikoaren bidez lortutako balantzearen eta kontuak igortzeko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ezarritako sistema informatikoan —IDECALen— ageri den balantzearen arteko aldea eragin dutenak ere.*
- *Osoko bilkurak onetsi beharreko kontu orokorraren espedientean jasotzea Nafarroako Toki Administrazio Kontabilitate Instrukzio Orokorrak eskatutako dokumentazio guztia.*
- *Udalaren ondasun eta eskubide guztien inbentario balioztatua gaurkotzea eta onestea eta balantzean ageri diren ibilgetu-saldoekin bateratzea, eta kasuko amortizazioak egitea.*
- *Langileak hautatzeko eta kontratazeko prozedura guztietan aplikatzea —bai eta aldi baterako edo eta lanaldi partzialekoetan ere— araudiak ezarritako hautapen-prozedurak, publizitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak errespetatuta betiere.*
- *Administrazio-kontratazioko espediente berriak izapidetzea aplikatzekoa den legedian ezarritako gehieneko indarraldia gainditu den kontratuen kasuan, eta plangintza egokiak egitea halako egoerak ekiditeko.*

Egin dugun fiskalizazio-lanaren ondorioz, fiskalizazioa egin bitarte aurkitutako beste auzi batzuei buruzko beste gomendio batzuk ere egin ditugu (4. eranskinean ageri dira).

José Javier García Logroño auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, araudi indardunak ezarritako tramiteak bete ondoren.

(Ignacio Cabeza del Salvador Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak alboan ageri den egunean digitalki sinatua)

1. GEHIGARRIA. VALTIERRAKO UDALAREN 2021EKO KONTU OROKORRAREN LABURPENA**2021eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria****Gastu-aurrekontuaren betetzea Sailkapen ekonomikoa.**

Gastuak	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko kreditua	Aitorturiko betebeharrak	Ordainketak	Betetakoa (%)	% Ordainketak
1. Langileak	1.234.083	0	1.234.083	1.195.301	1.188.157	97	99
2. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak	1.431.010	1.000	1.432.010	1.436.619	1.277.941	100	89
3. Gastu finantzarioak	2.505	0	2.505	1.726	1.726	69	100
4. Transferentzia arruntak	190.805	0	190.805	160.030	119.928	84	75
5. Kontingentzia funtsa	0	0	0	0	0	0	-
6. Inbertsioak	940.840	1.785.373	2.726.213	768.804	676.191	28	88
7. Kapital transferentziak	115.000	0	115.000	84.636	84.636	74	100
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	-
9. Finantza-pasiboak	67.800	413.514	481.314	480.774	67.257	100	14
Guztira	3.982.043	2.199.887	6.181.930	4.127.890	3.415.836	67	83

Diru-sarreraren aurrekontua betetzea. Sailkapen ekonomikoa.

Diru-sarrerak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubide garbiak	Kobrantsak	% (%)	% Kobrantsak
1. Zuzeneko zergak	723.520	0	723.520	874.130	783.961	121	90
2. Zeharkako zergak	60.000	0	60.000	57.921	55.022	97	95
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	387.300	0	387.300	396.487	379.124	102	96
4. Transferentzia arruntak	1.398.372	0	1.398.372	1.595.859	1.586.627	114	99
5. Ondarearen bidezko diru-sarrerak eta herri-lurren aprobeitxamendua.	830.725	0	830.725	831.585	184.941	100	22
6. Inbertsio errealak beste-erentzea	241.680	0	241.680	4.100	4.100	2	100
7. Kapital-transferentziak	340.528	143.400	483.928	292.264	164.579	60	56
8. Finantza-aktiboak	0	2.056.487	2.056.487	0	0	0	-
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	-
Guztira	3.982.125	2.199.887	6.182.012	4.052.347	3.158.355	66	78

2021eko ekitaldiko aurrekontuaren emaitza

Kontzeptua	2020	2021	Aldea (%)
Aitortutako eskubide garbiak	4.040.149	4.052.347	0
Aitortutako betebeharrak garbiak	4.503.363	4.127.890	-8
Aurrekontu-emaitza	(463.214)	(75.544)	-84
Doikuntzak:			
Finantza-aktiboen desbideratze positiboa	-	-	-
Finantza-aktiboen desbideratze negatiboa	124.023	5.198	-96
Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako gastuak	890.108	433.311	-51
Aurrekontu-emaitza doitu	550.916	362.965	-34

2021eko diruzaintzako gerakinaren egoera-orria

Kontzeptua	2020	2021	Aldea (%)
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	1.938.057	2.282.967	18
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	695.329	891.556	28
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	487.328	510.237	5
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	1.202.861	1.349.463	12
(+) Ordainketen itzulketak	5.461	3.968	- 27
(-) Bilketa zaileko eskubideak	-450.945	-469.832	4
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-1.977	-2.425	23
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	-616.699	-1.029.355	67
(-) Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	-310.152	-712.054	130
(-) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	-47	-1.418	2.943
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	-303.965	-315.784	4
(-) Ordaintzeko dauden itzulketak	-2.535	-99	- 96
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	0	0	-
(+) Diruzaintzako funts likidoak	2.987.116	2.929.816	- 2
(+) Finantzaketa-desbideratze metatu negatiboak	0	5.198	-
Diruzaintza-gerakina, guztira	4.308.474	4.188.627	- 3
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	0	0	-
Diruzaintza-gerakina, baliabide atxikiak direla-eta	36.868	0	-100
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	4.271.606	4.188.627	- 2

2021eko abenduaren 31ko egoera-balantzea

Deskribapena	2020	2021	Deskribapena	2020	2021
A Ibilgetua	26.079.452	27.000.397	A Funts berekiak	17.646.993	31.636.529
1 Ibilgetu materiala	13.630.489	14.333.630	1 Ondarea eta erreserbak	6.744.434	6.900.674
2 Ibilgetu ez-materiala	285.354	285.389	2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoak (mozkina)	12.693.975	13.541.031
3 Erabilera orokorrerako azpiegitura eta ondasunak	12.119.647	12.303.480	3 Kapitaleko dirulaguntzak	10.902.560	11.194.824
4 Herri-ondasunak	43.930	77.866	B Arrisku eta gastuetarako hornidurak	0	0
5 Ibilgetu finantzarioa	32	32	4 Hornidurak	0	0
B Zenbait ekitalditan banatu beharreko gastuak	0	0	C Epe luzeko hartzekodunak	480.774	0
6 Deuseztatu beharreko gastuak	0	0	Jesapenak, maileguak eta jasotako fidantzak eta gordailuak	480.774	0
C Zirkulatzailea	5.420.158	5.718.809	D Epe laburreko hartzekodunak	649.829	1.054.638
7 Izakinak	0	0	Itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	647.852	1.052.213
8 Zordunak*	2.433.042	2.788.993	6 Aplikatzeko dauden partidak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	1.977	2.425
9 Kontu finantzarioak	2.987.116	2.929.816			
Aktiboa, guztira	31.499.610	32.719.206	Pasiboa, guztira	31.471.571	32.691.167

(*) udalaren kontabilitateko aplikazio informatikoaren bidez lortutako balantzeko zenbatekoak, IDECAL sisteman ageri direnekin bat ez datozenak Horri buruzko xehetasunak, txosten honetako 4. gehigarriko 4.4.1 apartatuan

2021eko ekitaldiko emaitzen kontua

Ekitaldiko emaitza arruntak

Deskribapena	2020	2021	Deskribapena	2020	2021
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Azken izakinak	0	0
39 Izakinen prezioaren beherapenaren ondoriozko hornikuntzak (ekitaldiko hornikuntza)	0	0	39 Izakinen prezioaren beherapenaren ondoriozko hornikuntzak (ekitaldiko hornikuntza)	0	0
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	426.949	456.785
61 Langile gastuak	883.129	890.881	71 Jabetza eta enpresa-errenta	566.382	758.017
62 Finantza-gastuak	7.416	1.726	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	722.052	638.054
63 Zergak	0	0	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	156.038	163.149
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	1.158.780	1.436.315			
65 Gizarte-prestazioak	280.106	304.724	75 Ustiapenerako dirulaguntzak	0	0
66 Ustiapenerako dirulaguntzak	0	0	76 Transferentzia arruntak	1.431.538	1.595.859
67 Transferentzia arruntak	189.712	160.030	77 Kapitalaren gaineko zergak	0	130.848
68 Kapital-transferentziak	84.331	84.636	78 Bestelako diru-sarrerak	30.086	13.270
69 Amortizaziorako eta horniduretarako zuzkidurak	0	0	79 Beren helbururako aplikaturiko hornidurak	0	0
800 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	729.570	877.671	800 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	0	0
Guztira	3.333.044	3.755.982	Guztira	3.333.044	3.755.982

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2020	2021	Deskribapena	2020	2021
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	729.570	877.671
82 Ezohiko emaitza (saldo zorduna)	0	0	82 Ezohiko emaitza (saldo hartzekoduna)	0	0
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	609	30.615	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	0	0
89 Mozkin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	728.960	847.056	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	0	0
Guztira	729.570	877.671	Guztira	729.570	877.671

2. GEHIGARRIA. VALTIERRAKO UDALA

Valtierra Nafarroako Erriberako udala da, 49,9 km² ditu eta 2.439 biztanle zeuzkan 2021eko urtarrilaren 1ean.

Batik bat osoko Bilkurak (11 kide), Tokiko Gobernu Batzarrak eta alkateak osatzen dute udal antolamendua. Sei informazio-batzorde ditu; horien artean, Kontuen Batzorde Berezia.

Udalak ez dauka ez erakunde autonomorik, ez sozietate publikorik, ez haren menpeko fundazio publikorik ere².

Errege Bardearen Komunitateko entitate gozamen-kidea da Valtierra. Eta honako mankomunitate hauetan parte hartzen du:

- Erriberako Mankomunitatea, zeinaren bidez ematen baitira hondakinen bilketa eta tratamendurako zerbitzuak eta kale-garbiketako zerbitzua.
- Arguedas, Valtierra, Villafranca, Milagro eta Cadreitako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, herritarrei informazioa, orientazioa eta gizarte-laguntzak bermatu behar diena gizarte-ingurune horretan bizi-kalitatea hobetzeko.
- Ebroko Kirol Mankomunitatea, kirol zerbitzuak emateko sortua.

Zerbitzu mankomunatu horiek guztiek 92.289 euroko gastua ekarri diote Udalari 2021ean.

Udala Nafarroako Erribera garatzeko Estrategietarako Partzuergoko kidea da (EDER Partzuergoa). Honako hauek dira, besteak beste, horren helburuak: jarduera ekonomikoa eta enplegua sustatzea, eskualdearen lehiakortasun-posizioa hobetzea eta eragile ekonomiko eta sozialek eskualdeak dituen arazoak konpontzeko orduan parte-hartze aktiboa izan dezaten aldezte. Partzuergoa, estatutuek ezarri bezala, Tuterako Udalari atxikita dago. Valtierrako Udalak 4.828 euroko ekarpena egin zuen 2021ean.

² "La Esperanza" gizarte-etxea erakunde autonomoa 2016an desegin zen, nahiz eta oraindik ere ageri den Ogasun Ministerioaren mendeko Tokiko Sektore Publikoko Entitateen Inbentarioan.

Ondotik doan taulan, Udalak emandako zerbitzuak eta zerbitzu horietako bakoitza nola eman den ageri da:

Zerbitzua	Udalaren zuzeneko kudeaketa	Zeharkako kudeaketa	Mankomunitatea
Argiteria publikoa		x	
Hilerria	x		
Hondakinen bilketa			x
Bide-garbiketa*	x		x
Edateko ura etxeetara hornitzea.	x		
Estolderia	x		
Hirigintza		x	
Udaltzaingoa	x		
Kulturaren sustapena eta kultur ekipamenduak	x		
Ikastetxe publikoak mantentzea	x		
Turismo-jardueraren sustapena	x		
Merkataritza ibiltaria	x		

*Zuzeneko kudeaketa eta mankomunitatearen bidezkoa, biak batera baliatzen dira zerbitzua emateko.

3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA

Honako arau hauek osatzen dute, funtsean, Valtierra Udalari 2021ean aplikatzekoa zaion arau-esparrua:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzkoa.
- 3/2004 Legea, abenduaren 29koa, merkataritza-eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkideari buruzkoa.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, sektore publikoaren araubide juridikoari buruzkoa.
- 11/2020 Legea, abenduaren 30ekoa, Estatuaren 2021eko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, enplegu publikoaren eskaintzari eta langileen kontratazioari dagokienez.
- 2/2015 Legegintzako Errege-dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena.
- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa, eta hura garatzeko erregelamenduzko xedapenak.
- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako toki ogasunei buruzkoa, eta hura garatzeko erregelamenduzko xedapenak..
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, kontratu publikoei buruzkoa.
- 23/2018 Foru Legea, azaroaren 19koa, Nafarroako polizia buruzkoa.
- 6/2020 Foru Legea eta 7/2020 Foru Legea, apirilaren 6koak, presako neurriak onesten dituztenak COVID-19ak eragindako inpaktuari aurre egiteko.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena, bai eta hura garatzeko erregelamenduzko xedapenak ere.
- 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 26koa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duena.
- 1998ko irailaren 21eko 270. eta 272. foru dekretuak, zeinak Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari eta kontabilitateari buruzkoak baitira, eta irailaren 23ko 234/2015 Foru Dekretua, Nafarroako toki entitateen aurrekontu egitura onesten duena.
- Udalaren 2021eko aurrekontua betetzeko oinarriak eta Udalaren gainerako arauak.

4. GEHIGARRIA. OHARRAK ETA FISKALIZAZIOAREN AURKIKUNTZA GEHIGARRIAK

Ondoren ohar eta argibide osagarri batzuk emanen ditugu, Ganbera honen ustez interesgarriak baitira fiskalizazio txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat.

"XI. Muntako gomendioak" atalean jasotakoez gain, orobat gehitu ditugu Ganbera honen ustez Udalaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren beste gomendio batzuk.

4. eranskin honetan, urteen arteko konparazioak eta ratioak desitxuratuta ager ez daitezzen, berriz sailkatu ditugu kapital-transferentzia bidezko diru-sarrera bati buruzko datuak; izan ere, Udalak oker kontabilizatu du, ez baita transferentzia arrunt bat (gehigarri honen 4.4.8 apartatua azaltzen da hori).

4.1 2021EKO AURREKONTU OROKORRA

Valtierrako Udalaren Osoko Bilkurak 2020ko abenduaren 28an eman zion hasierako onespena 2021eko ekitaldiko Aurrekontu Orokorriari. Behin betiko onespena 2021eko martxoaren 1eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO, hemendik aurrera) argitaratu zen. Onetsitako behin betiko aurrekontua 2022ko azaroaren 15ean igorri zitzaion Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari (aurrerantzean, NFKA).

Alkateak 2020ko abenduaren 31n eman zuen ebazpen baten bidez luzatutako aurrekontua egon zen indarrean aurrekontu hori indarrean sartu zen arte.

Udalaren 2021erako hasierako aurrekontuak 3,98 milioi euroko diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspen hasierakoak jasotzen zituen.

Egindako aurrekontu-aldaketan ondorioz, zeinen bidez 2,20 milioi igo baitziren diru-sarrerak eta gastuak (hasierako kredituen ehuneko 55), behin betiko diru-sarrerak eta gastuak 6,18 milioi egin zuten.

Aurrekontu-likidazioa

2021eko aurrekontuaren likidazioa alkatearen 2022ko irailaren 22ko ebazpen baten bidez onetsi zen, eta kontu orokorra, berriz, Udalak 2022ko abenduaren 2an egindako osoko bilkuran; hain zuzen ere, legez ezarritako epearekiko atzerapen handiarekin bi kasuetan, likidazioa hurren ekitaldiko martxoaren 31 baino lehen onetsi behar baita, eta kontu orokorra, berriz, irailaren 1a baino lehen.

Gastuak 4,13 milioiokoa izan ziren 2021ean —betetze-maila: ehuneko 67—, eta diru-sarrerak 4,05 milioiokoa —betetze-maila: ehuneko 66—.

Ondotik heldu den taulan, udalaren gastua eta finantzaketa ehunekotan nola banatu ziren ageri da, bai eta aurreko ekitaldiarekiko konparazioa ere.

Gastuaren izaera	2020	2021	Finantzaketa iturria	2020	2021
Langileak	26	29	Tributu bidezko diru-sarrerak	28	29
Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	26	35	Transferentziak	45	47
Transferentziengatikoko gastuak	6	6	Ondare bidezko diru-sarrerak eta bestelakoak	18	24
Inbertsio errealak	30	19	Inbertsio errealean besterentzea	8	0
Finantza-zama	12	12			
Guztira	100	100	Guztira	100	100

Diru-sarreraren iturri nagusia transferentziak eta zerga bidezko diru-sarrerak dira; hurrenez hurren, ehuneko 47 eta ehuneko 29. Urtetik urterako aldaketan, ondare bidezko diru-sarrerak eta bestelako diru-sarrerak ehuneko sei igo direla nabarmendu beharra dago.

Gastuak honako hauetan metatzen dira: ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak (ehuneko 35) eta langileak (ehuneko 29). Urtetik urterako aldaketan, ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak igoera eta inbertsio errealean jaitsiera nabarmendu behar dira.

Aurrekontu-likidazioaren adierazleak

Ondoren, 2020ko eta 2021eko ekitaldietako aurrekontu-likidazioarekin zerikusia duten adierazle batzuen alderaketa erakusten dugu:

Adierazleak	2020	2021	Aldea (%)
Eskubide aitortuak	4.040.149	4.052.347	0
Aitortutako betebeharrak	4.503.363	4.127.890	-8
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	3.305.715	3.555.982*	8
Funtzionamendu gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	2.511.727	2.791.950	11
Kapitaleko diru-sarrerak	734.434	496.364*	-32
Kapitaleko gastuak	1.441.697	853.440	-41
Saldo ez-finantzarioa	79.308	405.231	411
Aurrekontu-emaizta doitua	550.916	362.965	-34

(*) Errege Bardeako Komunitatearen kapital-transferentziari buruzko zuzenketa egin da.

Aurreko bilakaeratik, honako hau nabarmendu behar dugu:

- Diru-sarrerak, guztira, aurreko ekitaldiko bertsuak dira; izan ere, diru-sarrera arrunten igoera —ondare bidezko diru-sarreretan metatua— ia-ia neutralizatzen du inbertsio errealak ez besterentzetik heldu den kapitaleko diru-sareren jaitsierak.

- Gastuak 375.473 euro jaitsi ziren (ehuneko zortzi), inbertsio errealetako gastuen murrizketagatik batez ere.

- Aurrekontu-emaizta doitua 187.951 euro jaitsi zen (ehuneko 34).

Gure gomendioa da aurrekontua, aurrekontu-likidazioa eta kontu orokorra legez ezarritako epeetan onestea eta NFKAra igortzea.

4.2 UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2021-12-31N

Taula honetan, 2021eko ekitaldiko adierazle ekonomiko-finantzario batzuk azaltzen dira, eta aurreko ekitaldikoekin alderatzen:

Adierazleak	2020	2021*	Aldaketa, ehunekotan
Aurrezki gordina	793.988	764.033	-4
Finantza-zama	549.939	482.500	-12
Aurrezki garbia	244.049	281.532	15
Finantza-zamaren indizea	% 17	% 14	-18
Aurrezki gordinen diru-sarrera arrunten gainean zenbat egiten duten %	% 24	% 22	-11
Zor bizia	480.774	0	-100
Biztanle bakoitzeko zorra	197	0	-100
Zorpetze maila (zor bizia/diru-sarrera arruntak)	% 15	% 0	-100
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	4.271.606	4.188.627	-2
Autonomia fiskala (tributuak/aitortutako eskubide garbiak)	% 30	% 31	4
Kobratzea zalantzazkoa den zordunen indizea (kobratzea zalantzazkoa den zordunen saldoa/kobratzeko dauden zordunak)*100	% 32	% 26	-17

(*) Errege Bardeako Komunitatearen kapital-transferentziari buruzko zuzenketa egin da.

(**) 2021eko urtarrilaren 1eko biztanlerian oinarrituta egin da kalkulua bi ekitaldietan..

Taula horretan alderdi hauek azpimarra daitezke:

- Aurrezki gordina ehuneko lau jaitsi zen; izan ere, ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak igotzetik heldu den funtzionamendu-gastuen igoera handia (ehuneko 11) diru-sarrerara arruntena baino handiagoa izan da (ehuneko 8).
- 2021eko ekitaldi amaierako zor bizia —taulan ageri da— nulua izan bazen ere —hala ageri da txosten honetako IV. atalean azaltzen den salbuespenean (Finantza-auditoretzako iritziaren oinarria, salbuespenekin)—, data horretako egiazko zor bizia 413.517 eurokoa zen; hortaz, biztanle bakoitzeko zor bizia 170 eurokoa zen, eta zorpetze-maila, berriz, ehuneko 12koa. Dena den, kopuru horien 2021eko bilakaera aldekoa izan zen, eta maileguak 2022ko otsailean kitatu ziren.
- 2021ean, jaitsi egin zen finantza-zama. Aurrezki garbia positiboa izan zen, eta igo egin zen aurreko ekitaldiaren aldean. Arestiko paragrafoan adierazitako salbuespenean esandakoa kontuan hartuta, finantza-zama 68.983 eurokoa izanen zen, aurrezki garbia 695.049 eurokoa eta finantza-zamaren indizea ehuneko bikoa.
- Udalak munta handiko diruzaintza-gerakina dauka gastu orokorretarako —salbuespen horretan adierazitakoaren arabera, 4,60 milioikoa izanen zen—, halako moduan non ehuneko zortzi handitu baita aurreko ekitaldia ixtean zeukanaren aldean.

Ondorioz, Valtierra udalaren finantza-egoera saneatua da. Aurrezki garbia positiboa da; horrek esan nahi du udalak behar adina baliabide sortzen dituela funtzionamendu-gastuei eta finantza-zamari aurre egiteko, zorpetze-maila jaitsi egin dela eta udalak munta handiko diruzaintza-gerakina daukala. Hor-taz, hurrengo ekitaldietako aurrekontu-aldaketak finantzatzeko likidezia dauka.

4.3 AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN PRINTZIBIOAK.

COVID-19aren pandemiak ekarritako krisi sanitario, sozial eta ekonomikoa dela-eta, Europako Batzordearen gomendioei jarraituz, 2020ko urrian Diputatuen Kongresuak aparteko larrialdi bat gertatu zela adierazi zuen, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko araudian ezarritakoarekin bat. Horrenbestez, 2020-2021 aldirako etenda gelditu ziren aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren eta gastu-arauaren helburuak, nahiz eta hori ez den eragozpen izan toki entitateen zorpetze-operazioei buruzko baimenen araubidea mantentzeko.

Finantza-iraunkortasunaren printzipioak direla-eta:

a) Gastu-arau hori betetzearen ondorioei begira, kontuan hartuta txosten honetako IV. atalean azaldutakoa —Finantza-auditoretzako iritziaren oinarria, salbuespenekin— eta gehigarri honetako 4.4.11 apartatutan aipatzen den abala, Udalak 473.517 euroko egiazko zor bizia zeukan 2021eko abenduaren 31n; zenbateko horrek diru-sarrerara arrunten ehuneko 13 egiten du, ehuneko 110eko muga baino askoz ere gutxiago, alegia.

b) Udalak ez du kalkulatu hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea.

Gure gomendioa da hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea hiru hilean behin kalkulatzea eta argitaratzea.

4.4 KUDEAKETA-ALOR GARRANTZITSUAK

4.4.1 Alderdi orokorrak

- Organo kontu-hartzaileak ez du eragozpenik jarri ekitaldian.
- Izapidetu diren aurrekontu-aldaketak araudiarekin bat datoz. Halere, betebeharrak onartuak behin betiko kredituak baino handiagoak izan dira lau lotura-poltsatan —guztira, 112.721 euro—, ez baitira kasuko aurrekontu-aldaketak izapidetu.
- Osoko Bilkurak onetsitako kontu orokorraren espedientea osatu gabe dago, ez baititu jasotzen, besteak beste, egoera-balantzea eta galera eta irabazien kontua.
- IDECAL sisteman jasota datorren egoera-balantzean 13,60 milioiko deskoadratzea dago; horietatik, 13,54 milioi zor zaizkio "Ekitaldiko emaitza ekonomikoa" epigrafea jaso ez izanari udalaren kontabilitateko aplikazio informatikotik datuak transmititzean. Halaber, "Zordunak" epigrafeko saldoan 32.744 euroko alde dago, IDECALen jasota datorren balantzearen eta udalaren kontabilitateko aplikazio informatikoaren bidez lortutakoaren artekoa. Aplikazio informatiko horren bidez lortutako balantzean, berriz, 28.039 euroko deskoadratzea dago aktiboaren eta pasiboaren artean. Deskoadratze hori aurreko ekitaldietatik heldu da, eta Kontu-hartzaileak dio aplikazio informatiko horren parametrizazioaren akats batek eragindakoa dela.
- Udalaren zenbait banku-kontutan, legezko ordezkariak modu solidarioan baliatzen dituzte funtsak. Horietako batean, gainera, udalaren ordezkari gisa ageri den pertsonak jada ez dauka ordezkari hori hari egotea eragin zuen kargua.
- Ez da jasota ageri Udalaren Lurzoru-ondarea osatzen duten ondasunen inbentarioa, eta horren erregistrorik ere ez da eratu. Hirigintza-hitzarmenaren erregistrorik ere ez da eratu.

XI. atalean —"Muntako gomendioak"— hori dela-eta esandakoaz gain, honako hau gomendatzen dugu:

- *Egin beharrekoak diren aurrekontu-aldaketak garaiz izapidetzea, kredituen lotura juridikoko poltsak ez gainditzeko.*
- *IDECAL sisteman jasota datozen kontu orokorreko datuen osotasuna egiaztatzea, udalaren kontabilitateko aplikazio informatikotik datuak transmititzeko prozesua bukatuta dagoenean.*
- *Udalak finantza-entitateetan dauzkan legezko ordezkarien datuak gaurkotzea, eta beharrezkoak ez diren banku-kontuak kitatzea.*
- *Banku kontuetako funtsak baliatu ahal izateko sinadura bateratua ezartzea.*
- *Hirigintza-hitzarmen Administrazioaren Erregistroa eta Udalaren Lurzoru-ondarearen Erregistroa sortzea, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuan xedatutakoari jarraikiz.*

4.4.2 Langile gastuak

Udalaren langileria-gastuak 1,20 milioikoak izan ziren (behin betiko kredituen ehuneko 97); hau da, ekitaldiko betebeharrak onartu guztien ehuneko 29. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko hiruko igoera izan dute.

Hurrengo taulan, gastu horiek xehakaturik eta aurreko ekitaldiarekiko alderaketa jaso dira:

Aurrekontu-partida	ABG 2020	ABG, 2021	Aldea	Aldea (%) 2021/2020
Gobernu-organoen oinarrizko ordainsariak	76.096	65.620	-10.476	-14
Funtzionarioen oinarrizko ordainsariak	346.841	400.995	54.154	16
Lan-kontratudun finkoen ordainsariak	12.822	16.362	3.540	28
Aldi baterako langile lan-kontratudunen oinarrizko ordainsariak	256.896	209.638	-47.258	-18
Gizarte kuotak	466.407	497.639	31.232	7
Bestelako gizarte gastuak.	3.704	5.046	1.342	36
Guztira	1.162.767	1.195.301	32.534	3

Plantilla organikoa

Udalaren plantilla organikoaren behin betiko onespina 2021eko ekainaren 21eko NAO n argitaratu zen.

2021eko abuztuaren, 2019ko, 2020ko eta 2021eko plantilla organikoen aldaketa onetsi zuen udalak; horren bidez, zuzendu egin ziren Osoko Bilkurak uren arduradunaren lanpostuari eta zerbitzu anitzetako bi lanposturi esleitutako osagarriak.

Hona plantilla organikoko lanpostuak 2020ko eta 2021eko ekitaldiak ixtean:

Langileak	2020	2021
Plantillako langileak	15	15
Beteta	7	8
Hutsik	8	7
Lanpostu hutsak lanpostu guztien gainean (%)	53	47
Bete diren lanpostu hutsak	5	4
Bete diren lanpostu hutsak (%)	63	57
Bete gabeko lanpostu hutsak	3	3
Bete gabeko lanpostu hutsak (%)	37	43
Aldi baterako kontratazioa (%)	42	33

Egindako azterketaren ondorioz honako hau adierazi behar dugu, txosten honetako VIII. atalean jada esandakoaz gain —“Bestelako lege- eta erregelamendu-errekerimenduei buruzko informazioa”—.

- 2021eko ekitaldia ixtean zenbait pertsona zeuden lan-araubidean kontratatuta (kasu batzuetan, lanaldi osoan eta/edo zenbait urteko antzinatasunarekin), plantilla organikoan jasotzen ez diren zerbitzu anitzetako enplegatu-lanpostuetan eta musika eskolako irakasle lanpostuetan, udalaren egiturazko beharrian iraunkorrei erantzuteko.

- Lan-araubidean kontratatutako langileei NFKAren eta haren menpeko erakunde autonomoen zerbitzuko langileen enpresaz gaidiko 2007ko hitzarmen kolektiboa aplikatzen zaie, baina udalak ez du berariazko akordiorik onetsi hitzarmen horri lotzeko, eta kontratuetan ez da halakorik jasotzen.

- Plantilla organikoak ez du zehazten lanpostuak zer araubide juridikori lotzen zaizkion.

Lan-eskaintza publikoa, hautapen prozesuak eta aldi baterako kontratazioa

2018tik 2021era bitarte, udalak lan-eskaintza publiko bakar bat onetsi zuen, 2019an hain zuzen ere, zeinean zerbitzu anitzetako enplegatuen bi lanpostu eta arkitekto teknikoaren lanpostu bat sartu baitziren. Ez da egin azken horren hautapen prozesuaren deialdirik.

2021ean bukatu zen zerbitzu anitzetako enplegatuen bi lanpostu horien hautapen prozesua, eta administrari-ofizialaren lanpostua aldi baterako betetzeko izangaien zerrenda egiteko hautapen prozesua egin da. Bi hautapen prozesu horiek aztertu ditugu, eta ez dugu gorabehera nabarmenik detektatu.

Orobat aztertu dugu ekitaldian egindako langileen kontratazioen lagin bat, eta ondorioztatu dugu ez dela betetzen publikitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak betetzen direla bermatzen duen prozedura bat musika eskolako lanaldi partzialeko irakasle beharrianak asetzera bideratutako kontratazioetan.

Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legetik heldu diren egonkortze-prozesuei dagokienez, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak 2022an egindako deialdian sartu dira idazkaritzako ea kontu-hartzaitzako lanpostuak.

Langile-gastuaren egiaztapenak

9 pertsonaren urriko nominako 11 kontzeptu berrikusi eta aztertu ditugu, guztira 22.798 euro egiten dutenak, honako xehetasun hauen arabera:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Oinarrizko soldata	12.645
Lanpostu osagarria	4.394
Gradua	1.513
Bateraezintasuneko osagarria	1.274
Aparteko orduak	982
Familia laguntza	629
Berariazko osagarria	621
Bosturtekoak	307
Arrisku bereziko osagarria	168
Lanaldiaren luzapeneko osagarria	167
Zuzendaritzako osagarria	98
Guztira	22.798

Oro har, Udaleko langileek behar bezala jaso dituzte aztertutako ordainsari-kontzeptuak, honako akats hauek gorabehera:

- Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko langileen ordainsariei buruzko behin-behineko errege-lamenduan ezarritakoa gainditzen duten aparteko orduak ordaintzen ditu udalak. Horiek kalkulatzeko moduaren arabera —modu hori 2018ko abenduaren 27ko eta 2019ko abenduaren 16ko osoko bilkuretan ezarri zen—, aparteko ordu bakoitzeko zenbatekoa oinarrizko ordainsari pertsonalak eta lanpostuari lotutako osagarriak kontuan hartuta ezartzen da.

- Pertsona batek aparteko orduengatik ordainsariak eta lanaldiaren luzapeneko osagarria jaso ditu aldi berean, nahiz eta bateraezinak diren. Dena den, txosten hau egin den egunean, udalak itzulketaren espedientea abiarazi du.

Bestalde, 2022ko martxoan, udalak eta ordezkariak sindikalak akordio edo itun misto bat sinatu zuten funtzionario, langile administrazio-kontratadun eta langile lan-kontratadunentzat (2022ko abuztuaren 2ko 153. NAO). Nafarroako Gobernuak akordio hori aurkaratu du administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, uste baitu udala bere eskumen-eremuaz harago joan dela akordioa onestean.

XI. atalean —"Muntako gomendioak"— hori dela-eta esandakoaz gain, honako hau gomendatzen dugu:

- Plantilla organikoan jasotako lanpostuen zerrenda eta horien ezaugarriak udalaren egiturazko beharrietara egokitzea.*

- Lanpostu hutsen deialdia egitea, behin-behinekotasuna murrizteko.*

- Lanpostu bakoitzaren araubide juridikoa zehaztea plantilla organikoan.*

- Lan-kontratadunen kasuan, espresuki ezartzea kasuko hitzarmen kolektiboa aplikatuko dela, udala horri atxikitzeak akordioaren bidez edo kontratuaren bidez jasota.*

- *Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko langileen ordainsariei buruzko behin-behineko erregelamenduan ezarritakoarekin bat ordaintzea aparteko orduak.*

4.4.3 Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak

Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak 1,44 milioikoak izan ziren, ekitaldian onartutako betebeharrak guztien ehuneko 35, eta behin betiko kredituen ehuneko 100 gauzatu dira.

Ondotik doan taulan, ondasun eta zerbitzuen gastu arrunten kontzeptu nagusiak eta aurreko ekitaldi-arekiko alderaketa jaso ditugu:

Deskribapena	2020ko AGB	ABG, 2021	Aldea	Aldea (%) 2021-2020
0-3 ikastetxea, kudeaketa zerbitzua	133.647	159.014	25.366	19
"La Quemada" ureztatze hornidura	93.607	109.520	15.912	17
Kultur jarduerak	26.979	80.325	53.346	198
Argiteria publikorako energia elektrikoa	42.821	64.653	21.832	51
Ikastetxea, musika eskola eta liburutegia garbitzeko kontrata	41.397	54.465	13.068	32
"La Quemada" -ren mantentze-lanak	56.759	54.255	-2.503	-4
Herri-lurrak ureztatze uraren hornidura	32.650	41.145	8.494	26
Kirol-ikastaroetako gastuak	33.803	36.955	3.151	9
EUTEaren mantentze-lanak eta ustiapena	38.006	35.140	-2.866	-8
Kiroldegiko garbiketa eta atezaina	31.979	34.750	2.771	9
Udal arkitektoaren zerbitzu-sariak	30.669	32.142	1.472	5

Ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunta ehuneko 24 igo da aurreko ekitaldiaren aldean. Kultur jardueretako gastua nabarmen igo da; izan ere, COVID-19a dela-eta herriko festak bertan behera geratu zirenez, hainbat jarduera egin dira festen orde. Orik 3 urtera bitarteko zentroaren gastua igo da bertan unitate berri bat sortu delako batez ere. Orobat nabarmendu behar da argiteria publikoaren gastua igo izana, elektrizitatearen prezioa igo delako.

Gastuetako partida horiek direla-eta egindako azterketaren ondorioz azpimarratu behar da ezen, VIII. atalean jada esandakoaz gain —"Bestelako lege- eta erregelamendu-errekerimenduei buruzko informazioa"—, kirol-ikastaroetan egindako hainbat gastu daudela. Horien izaerari eta ekitaldian zehar egindako gastuari erreparatuta esan daiteke —kontuan hartuta hurrengo 48 hilabeteetarako aurreikusitako gastua— gaitu egiten dutela munta txikiko kontratuen araubide berezia baliatu ahal izateko muga, Kontratu Publikoari buruzko Foru Legearen 81. artikulua egungo idazketarekin bat.

XI. atalean —"Muntako gomendioak"— hori dela-eta esandakoaz gain, honako hau gomendatzen dugu: *kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzea (hurrengo 48 hilabeteetarako aurreikusitako gastua kontuan hartuta) horniduretako eta segidako prestazioko zerbitzuetako gastuen kasuan, eta kasuko lizitazio-prozedura izapidetzea.*

4.4.4 Inbertsioak

768.804 milioi euroko inbertsioak egin ziren, 2021eko betebeharraren ehuneko 19, alegia. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko 43 jaitsi dira.

Betetze-maila ehuneko 28koa izan zen soilik behin betiko kredituetan, aurreikusitako inbertsiorik handienak ez baitziren ekitaldian esleitu.

Honakoak izan ziren udalak 2021ean egindako inbertsio nagusiak:

Deskribapena	ABG, 2021
Eremitu publikoak hobetzeko lurrak erostea	148.915
Futbol zelaiaren egindako inbertsioa	119.861
Ikastetxeko sarbideak egokitzea	59.132
Traktore txiki bat erostea	44.528
Zenbait eraikin botatzea	41.587
Bideetako inbertsioa	39.558
Iturriko pasealekua	33.993
Karabanen aparkalekua	33.619
Frontoiko aisiarako eremua	32.872

Lehendabiziko bost partidetan sartutako gastuen lagin bat aztertu dugu, eta atera dugun ondorioa da gastuak oro har justifikatuta, onetsita, kontu-hartzailetzak aztertuta eta behar bezala kontabilizatuta eta ordainduta daudela.

4.4.5 Kontratuen lizitazioa eta adjudikazioa

2021eko honako lizitazio hauek berrikusi ditugu, bai eta haien adjudikazioa eta betetze-maila ere:

Kontratua	Prozedura	Lizitazio- tzaile kopurua	Lizitazio- ren zenbate- koa*	Adjudikazi- oaren prezioa*	% Baja
Erabilera anitzeko pabiloia eraikitzeke eta Valtierra 1. sektoreko UE 22 urbanizatzeko lanen erredakzioaren eta zuzendaritza fakultatiboaren proiektua idazteko laguntza teknikoa	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	5	70.000	64.500	8
Kabinadun traktore berri bat erostea Valtierra Udalarentzat	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	3	40.000	36.800	8
Valtierrako "La Esperanza" gizarte etxeke talde berna kudeatzea eta ustiatzea	Negoziatua, lizitazio deialdirik gabe	2	34.800	34.800	0

*Lizitazioaren zenbatekoak eta adjudikazioko prezioak ez dute barnean hartzen BEZa

Kontratuen lizitazioa eta adjudikazioa, bai eta horien betetzea ere, kontratuei buruzko legediarekin bat egin dira oro har, eta gastuak onetsita, kontu-hartzailetzak aztertuta, justifikatuta eta behar bezala kontabilizatuta eta ordainduta daude; halere, laguntza teknikoaren kontratua eta traktore bat erostekoan ez da jasota ageri kontratazio organoaren txostenik (KPFLaren 102.4 artikulua), eta ez dira kontratazio mahaiaren aktak argitaratu.

Gure gomendioa da agindutako dokumentazio guztiarekin osatzea kontratazio espedienteak, eta kontratazio mahaiaren aktak argitaratzea, KPFLan ezarritakoarekin bat.

4.4.6 Transferentzia arruntetako eta kapital-transferentzietako gastuak

Transferentzia arruntetako betebeharraren ehuneko 160.030 euro egin zuten 2021eko ekitaldian, gastu osoaren ehuneko lau, alegia. Kapitulu horretako gastua ehuneko 16 jaitsi da aurreko ekitaldiarekin alderatuta; izan ere, udalak kalte-ordain bati egin behar izan zion aurre ekitaldi horretan, parke fotovoltaiko bateko obren hasiera dela-eta.

Kapital-transferentziak, berriz, 84.636 eurokoak izan ziren guztira, gastu osoaren ehuneko bi, alegia. Gehien-gehienak zahar-etxe batentzako dirulaguntza bati zor zaizkio.

Transferentzia arrunten eta kapital-transferentzien gastuak osatzen dituzten partida nagusiak honako hauek dira:

Kapitulua	Aurrekontu-partida	ABG, 2020	ABG, 2021	2021/2020 aldea (%)
Transferentzia arruntak	Oinarrizko gizarte-zerbitzuaren kudeaketa-gastuak	53.936	56.555	5
	"La Plana" igerilekuen kudeaketarako dirulaguntza	30.000	30.000	0
Kapital-transferentziak.	Dirulaguntza Zahar-etxeke inbertsioak	84.000	84.000	0

Hiru aurrekontu-partida horietan sartutako gastuak aztertu ditugu. Egindako azterketatik nabarmendu nahi dugu igerilekuetarako dirulaguntza izendunean ez dela jasota ageri hitzarmenak agindutako dokumentazio guztia aurkeztu duenik entitate onuradunak.

Gure gomendioa da emandako dirulaguntzen justifikazioari buruzko kontrola hobetzea, halako moduan non hitzarmenak agindutako dokumentazio guztia Erregistro Orokorrean aurkeztea eskatuko baita, egindako azterketak euskarri dokumentala izan dezan.

4.4.7 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk

Udalaren tributu bidezko diru-sarrerak, 2021ean, 1,33 milioikoak izan dira, diru-sarreraren guztien ehuneko 33, alegia. Horien artean, lurraren kontribuzio bidezkoak (ehuneko 35) eta tasak (ehuneko 30) —ur-hornidurari dagozkio ia erdiak— nabarmendu beharra dago.

Hurrengo taulan, horien xehakapena eta aurreko ekitaldiarekiko aldea jaso ditugu:

Kontzeptua	AEG 2020	AEG 2021	Guzt. gain. % AEG 2021	2021/2020 aldea (%)
Zuzeneko zergak	754.829	874.130	66	16
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	61.764	54.332	4	-12
Hiri-lurren gaineko kontribuzioa	438.580	413.607	31	-6
Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga	155.055	163.149	12	5
Hiri-lurren balioaren iguera	0	130.848	10	-
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	98.446	112.195	8	14
Ehiza-barruti pribatuaren aprobetxamendua	983	0	0	-100
Zeharkako zergak	123.261	57.921	4	-53
Eraikin, instalazio eta obren gaineko zerga	123.261	57.921	4	-53
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	372.129	396.487	30	7
Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak, guztira	1.250.219	1.328.539	100	6

Tasa, prezio publiko eta bestelako diru-sarreretako eskubide onartuak aurreko ekitaldikoaren oso antzekoak izan dira 2021ean. Nabarmenezkoa da lurraren kontribuzio bidezko diru-sarreraren jaitsiera, udalak zerga-tasa jaitea erabaki izanaren ondorioz heldu dena, bai eta jarduera ekonomikoen gaineko zergaren bidezko diru-sarreraren iguera ere, herrian jarduera berriak ezarri izanaren ondorioz heldu dena.

Hurrengo taulan ikus daitekeenez, Toki Ogasunei buruzko Foru Legean ezarritakoaren barruan daude zerga-tasak:

Kontzeptua	Udala, 2020	Udala, 2021	2/1995 FL
Lurraren kontribuzioa	0,380	0,361	0,10 – 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza	15	15	8 - 25
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	4,80	4,50	2 - 5

2021ean indarrean egon den balorazio-ponentzia 2012an onetsi zen. Halere, horren berrikuspena 2021ean amaitu zen izapidetzen.

Zuzeneko eta zeharkako zerga bidezko diru-sarrera guztien lagin bat berrikusi dugu. Horren bidez egiaztatu dugu ezen, orokorrean, zergen likidazioa eta haien diru-bilketa ordenantzei eta kasuko arauari jarraituz egin direla. Dena den, honako hauek nabarmendu behar ditugu:

- Aldizkako tributuak biltzeko erroldak ez ditu Tokiko Gobernu Batzarrak onesten.
- 2022a ixtean, agentzia betearazleari igorri gabe zeuden 2021eko ekitaldian kobratzeke zeuden tributuaren zerrendak, nahiz eta 2022ko urrian ordainketa erreklamatzeko gutunak bidali ziren, berandutze-interesak eta errekarquak aplikatu gabe baina.
- Udalak ez dauka tributuaren kontrolerako planik.
- Ez dago tasa eta prezio publikoekin ordaintzen diren kostuei buruzko azterketarik.

Gure gomendioak:

- *Aldizkako tributuak biltzeko erroldak onestea Tokiko Gobernu Batzarraren akordio bidez, aurrekontua betetzeko oinarrietan ezarritakoarekin bat.*
- *Tributuak biltzean, berandutze-interesak eta errekarquak aplikatzea Nafarroako Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrarekin bat, eta kobratu gabeko tributuak agentzia betearazleari igortzea, modu sistematikoan igorri ere, ekitaldi bakoitzaren amaieran gutxienez.*
- *Tributuaren kontrolerako plana bat onestea, Nafarroako Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrarekin bat.*
- *Kostuen azterlanak taxutzea eta onestea, tasen zenbatekoa justifikatzeko.*

4.4.8. Transferentzia arruntengatiko diru-sarrerak.

Kapitulu honetan 1,60 milioiko eskubideak kontabilizatu dira; horien artean, kapital-dirulaguntza bati dagozkion 200.000 euro sartu dira bidegabeki. Gainerako 1,40 milioiek udalak ekitaldian onartutako eskubideen ehuneko 34 egiten dute. Toki entitateek Nafarroako tributuaren parte hartzeko duten funtsetik dator horien ehuneko 51.

Jarraian, 2021eko ekitaldian jasotako transferentzia arrunt nagusiak jaso ditugu:

Aurrekontu-partidak	Aitortutako eskubide garbiak, 2020	AEG 2021	Aldea 2021/2020	Aldea (%),
TENTPFearen parte hartzea	713.129	715.269	2.139	0
Montepioen kostuaren finantzaketa	228.486	252.472	23.985	10
Errege Bardea dirulaguntza	200.000	200.000*	0	0
0-3 zentroaren funtzionamendu gastuetarako dirulaguntza	84.345	100.829	16.483	20
Eguzki-parkeko argiteria publikorako dirulaguntza	51.524	35.000	-16.524	-32
Udalkideen bertaratzeko ordaintzeko dirulaguntza	33.954	34.055	102	0

(*) Errege Bardeako Komunitatearen kapital-transferentziari buruzko zuzenketa egin da.

Transferentzia arrunt bidezko diru-sarrerak ehuneko bi jaitsi ziren aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Urteik urterako konparazioa egitean, deigarria da "eguzki-parkeko argiteria publikorako dirulaguntza" hitzarmenaren bidezko diru-sarreraren jaitsiera, 2020an bi ekitalditako eskubideak onartu izanari zor zaiona.

Aurrekontu-partida horiek osatutako lagin bat aztertu dugu. Egindako lanean ondorioztatu dugu aplikatzekoa den araudiarekin bat izapidetu, kudeatu eta kontabilizatu direla oro har transferentzia arrunt bidezko diru-sarrerak, salbu eta Errege Bardeako Komunitatearen kapital-dirulaguntzaren kapituluan bidegabeki kontabilizatutakoa, arestian aipatu duguna.

4.4.9. Ondare bidezko diru-sarrerak

Ondare bidezko diru-sarrerak 831.585 eurokoak izan ziren, udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 21, alegia. Horietatik, ia erdia "La Quemada" herri-lurreko aprobetxamendutik heldu dira.

Hurrengo taulan, kapitulu honetako diru-sarrera nagusiak jaso ditugu:

Aurrekontu-aplikazioak	AEG 2020	AEG 2021	Aldea 2021/2020	Aldea (%),
"La Quemada" herri-lurreko aprobetxamendua	307.226	409.656	102.430	33
<i>Soto</i> eta <i>Monte</i> lurzatiei aprobetxamendua	135.300	143.273	7.973	6
Parke fotovoltaikoko lurren errentamendua	78.967	78.572	-395	0
Parke eolikoaren kanona	0	65.198	65.198	-
Herri-lurretako larreen aprobetxamendua	52.462	52.946	484	1

Ondare bidezko diru-sarrerak ehuneko 33 igo ziren aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Nabarmentzekoa da herri-lurretako aprobetxamendutik heldu diren diru-sarreraren igoera, 2021ean onartutako eskubideak urte osoari dagozkionak direlako, eta aurreko ekitaldian, aldiz, herri-lurrean egindako adjudikazio berriaren osteko zortzi hilabetei soilik. Orobat nabarmentzekoak dira haize-parketik heldu diren diru-sarrerak, lehenbizikoz igarri direnak ekitaldi honetan, urtea amaitutakoan likidatzen baitira, eta parkea 2020an jarri zen abian.

Taulako lehendabiziko lau partidatan jasotako diru-sarreraren lagin bat aztertu dugu, eta ondorioa da aplikatzekoa den araudiarekin bat izapidetu eta kudeatu direla oro har ondare bidezko diru-sarrerak.

4.4.10. Kapital-transferentzien bidezko diru-sarrerak

Kapitulu honetan 292.264 euroko eskubideak kontabilizatu dira, nahiz eta horiei gehitu egin beharko litzaizkiekeen Errege Bardeako Komunitatearen kapital-transferentzietan dagozkien 200.000 euro, lehenago aipatu bezala. Diru hori zenbatuta, udalak 492.264 euroko diru-sarrerak izan zituen kapital-transferentzien bidez, udalak ekitaldian onartutako eskubideen ehuneko 12, alegia; diru-sarrera horiek ehuneko 24 igo dira aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Jasotako kapital-transferentzia nagusiak honako hauek izan ziren:

Aurrekontu-partidak	Aitortutako eskubide garbiak, 2021
Errege Bardearentzako dirulaguntza, inbertsioa egiteko	200.000*
TIP dirulaguntza "cabezo junta" eta "la higuera"	93.081
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza - Funts Berezia 2020	86.528
Zuzeneko dirulaguntza, ikastetxeko eta 0-3 zentroko sarbideak	40.000
Abeltegirako ekarpena, ura kanalizatzeko	31.298

(*) Errege Bardeako Komunitatearen kapital-transferentziari buruzko zuzenketa egin da.

Lehendabiziko hiru partidek osatutako lagin bat aztertu dugu, eta ondorioa da kapital-dirulaguntzetatik heldu diren diru-sarrerak aplikatzekoa den araudiarekin bat izapidetu eta kudeatu direla oro har, nahiz eta udalak 86.528 euroko eskubideak onartu dituen ekitaldi honetan, "tokiko ekonomia bultzatzeko inbertsio-erako kapital transferentzien aparteko funtseko" laguntzari dagozkionak. Kasuko inbertsioak egiteko epea 2021era bitartekoa bazen ere, dirulaguntza hori 2020ko irailean eman eta kobratu zen; hortaz, horren eskubideak ekitaldi horretan onartu beharrekoak ziren.

Gure gomendioa da transferentzien eta dirulaguntzen bidezko eskubideak kobratzen diren unean bertan onartzea edo, bestela, dirulaguntza eman duen entitateak betebeharra onartu izanaren froga dagoenean.

4.4.11. Udalak emandako abala

2021a ixtean, udala kirol-elkarte batentzako abal-emaile gisa ageri da mailegu batean (maileguaren printzipala 60.000 eurokoa da), baina kontu orokorrak ez du horri buruzko inolako informaziorik ematen.

Gure gomendioa da udalak emandako indarreko abalei buruz informatzea, Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitate Instrukzio Orokorrean ezarritakoarekin bat.

